EGO ALDEKO VIETNAM'EKO GORA-BERAK

Oraingo Ego aldeko Vietnam 1954'gna. arte Frantziaren mendean egona da. Ordurarte Indochina izeneko nazioa zan Ipar aldeko Vietnam'ekin batera. 1945'go guda bukatu ezkeroztik lurralde aietan bereala sortu zan guda berri bat Frantziaren kontrakoa. Azkenean, Bien-Dien-Fu'tik bidali zituztenetik, Frantzikoak eta Indochinakoak artu emanetan asi ziran eta Ginebran 1954'gn. uztaren 21'an tregua bat firmatu zuten. Ordu ezkeroz lenagoko Indochinan bi estadu sortu ziran. Bat Ipar aldeko vietnam izenekoa, estadu komunista. Bestea Ego aldeko Vietnam, izenez, estadu demokrata. Bereala egin zan ego aldeko estaduaren jabe Ngo Dinh Diem. Lendakari au katolikoa da bañan demokrata izatera irixteko oraindikan asko falta zaio. Ego aldeko Vietnam'ek sortu zanetik iskanbilla gogorrak izan ditu.

Sortu beziñ laister asi ziran iskanbillak bañan batez ere oraiñ azken aldeko urte auetan gogortu dira. Komunistak euren estadua Ipar aldean osatuta eduki arren, ego aldean ere laister azaldu ziran komunista guerrilleroak, Viet-Cong izenarekin. Ego aldeko Vietnam ez ditu menperatu al izandu eta ortarako Ipar ameriketaren laguntzaren bearrean arkitu dira, eta Ipar Amerikak lagundu diote, armak eta bidaliaz bakarrik ez ezik ere gizonak bidaliaz ere. Ala ere oraindikan ez dute pakea jartzea lortu. Gogo onez kenduko luteke ipar-ameriketarrak Diem lendakaria, diktadore bat besterik ez dalako, bañan ez dute beste iñor arkitzen bere ordean jartzeko eta orregatik eskuak lotuak dauzkate.

Komunistak Ipar aldeko Vietnam'eko estaduaren jabe egin ziranean, alde ortako katolikoak milla iges egin zuten, eta ego aldera etorri. Onela budista erri batean eta budismoaren lurralde indartsuenetan katolikoak ugari arkitu ziran. Naiz eta 10% izatera ez iritxi arren ego aldeko estaduaren leku indartsu asko bereganatu zituzten eta berak jarri ziran komunismoaren kontrako gudaren zuzendari bezela. Eta gauzak orrela daudelarik sortu da gobernuaren eta budistaren arteko asarrea. Asarre oiek urte onen maiatzaren 8'an asi ziran, budistak Budaren jaio urtebetzea ospatzen ari zirala gobernuarekin enfrentatu ta eriotz asko izanda. Ordu ezkeroztik eriotz eta iskanbillak ugari izandu dira.

Burruka au erlijio arteko burruka al da? ez det uste. Beñepiñ ez oso osoan. Gertatzen dana au da: ego aldeko Vietnam'eko gobernua diktadorea da, eta gobernu diktadore batek ez du iñola ere berak agintzen duan estaduan berak kontrolatzen ez dituan organizazio indartsuak izatea. Orregatik ezin du ikusi ego aldeko Vietnam'ek budismoa. Budismoa azkeneko urte auetan sendotzen eta berritzen ari da, eta bere organizazioak ugaritu eta sendotu egin ditu. Ego aldeko Vietnam'en dauzken organizazioak gobernuak ezin ditu kontrolatu ta or sortu iskanbilla.

Arregi'tar Rikardo'k

VENEZUELA'KO ABERASTASUNA

Joan zan garagarrillaren 20'an etorri zan bere errira Mons. Franzisko Zabaleta Lizarraga, jaun agurgarria. Leizarrak esaten degu Joandegiko Apaiza. 1950 urte garrenean joan zan Venezuela'ra.

Bere apaltasun zoragarriaz esan zizkidan ango berriak: bizitza, aberastasuna, ola indarra, erlijiua ta an bizi diran Euskaldunen izatea.

Beartua nago ematea, gure irakurleai, berak esan zizkidan albisteak.

Mons. Franzisko Zabaleta Santotomé de Guayana, Estado de Bolibar'ren dago. Santotomé de Guayana erri edo uri au, orain zortzi urte ta erdi etzan ezer erri itxurez, baña bai Oyana, basoa ta pizti larrin lurrak. Baña aurten 1963 garrenean, 100.000 biztanle bizi dira. Biztanle onen etorrera izan da ango lurpeko arrigarrizko aberastasuna. Emen, Santotomé de Guayana'n, daude burni minak eta siderurjiak; esan bearra daukat ateratzen duen mineraletik 75 % burnia dala.

Iru soziedade saiatzen dira ango ikuskintzatan: bi Iparamerikakoak dira, eta dolarrak nai ezik dauzkate beren eginkizunetarako; beste soziedade bestelako da. Soziedaden izenak dira: «Compañía Orinoko». Soziedade onen langilleak, juan dan urtean, ateratzen zituzten lurpetik 18 milloi tonelada. Soziedade onek burni geiago atera ta bialtzeko badauka, baña lana egiten du, nola eskatu ala atera. Soziedade onen injenieroa euskalduna da; bere izen ta abizena Langarika' tar Yulen, ta berez bizkaitarra.

Beste soziedadearen izena da: «Aireon Mines». Onek ateratzen du beti, iru milloi tonelada. Ta irugarren soziedade «Siderurgia Nacional» onek 1962'garren urtean atera zitun 150 milloi tonelada burni ta aurten amaituko du bere burni lanketa. Venezuela'tik bialtzen dute itxas-bidez, burnia Iparamerika'tara, Europa ta Japon'era.

Beste aberastasuna da Petroleo, edo urre beltza.

Menegrande, Creole, Sinclair, Tesas dira petroleo ateratzen duten iparamerika'ko kompañiak. Guztien artean ateratzen dituzte 3.000.000 kupel petroleo eguneko.

Iru estadu edo probintzitan ateratzen da petroleoa. Oiek dira: Estado de Zulia, Estado de Anzoategi eta Estado de Monaga. Venezuela'n Estadu esaten zaio probintziari.

Nazio onen lurpetik ateratzen die Bauxita, Cromo, Urre, Diamante ta beste mineral asko.

Egoamerika'n arkitzen dan Electrizidade central edo argi planta aundiena an omen da. Indarra omen du 300.000 kw. Indar au emateko, urak artzen ditu Caroní izeneko errekatik. Beste obra ikusgarria emen da orain egiten eta laister netako dijuan indarra izango omen da 400.000 kw.

ANGO EUSKALDUNAK

8.000 milla euskaldun, gutxi gora bera, bizi dira Venezuela'n. Oietatik 200 bat Santotomé de Guayana'n burni oletan, eta orain Caracas'tik euskaldun asko omen dijua burni olatera, langille baliotsua dalako.

ERRILIJIUA

Santotomé de Guayana'n berak agintzen dun edo buru egiten dun eliz barruti ontan, 75 % katolikuak omen dira eta baste gañekoak danatatik: Judatarrak, Protestanteak, Mahomatarrak, budistak ta abar.

Personak ere arraza danetatik.

Gobierno era: Demokrazia ta Lendakaria Betancourt Jauna.

Salbarredi'tar Demetir

BURU AINBAT ABURU

Zabala Jaunari.

«Euskeraren galera» gaiaz idatzi dezun artikuluan dudarik ez da egi aundiak esaten dituzula, bañan azkeneko lerrotan diozu «Bañan euskerari kalterik eta ondamenik aundienak egiten dienak emakumeak dira»... Egia esan min eman didazu... Baita ere idatzi dezu (Euskaldun senarrok *otxanak* baigera emazteen esanetara) Ba; gai ontan otxana dana berak agertzen du euskeraganako epeltasuna, gizona baldiñ bada bear du jakin kopeta zimurtzen oitura ori jartzeko bere etxian. Otxanak zeratela emaztean esanari... Beste gaietan badakizute euskaldun gizon geienak zuen koikukeria agertzen, ez bai da oraindik jaio emazterik senar tripatzaille eta ostatularia, otxandu duanik... Ez jauna, ez; euskeraren galera gañean, denak gera errudun, leenik gurasoak noski, etxean eutsitzen badiogu alperrikakoak dira enbata guziak, bigarreneko ikastolak; begira zembat egin dezaketen maixuak; emen Ondarrabian oartzen bazera (marina aldian) mutil multxoak jolasten; jo-ta-ke euskeraz mintzatzen dira; aldiz neskak erderaz eta bearba anai arrebak dira, ama beranak, bañon gertaera onen sustraia errex da ulertzen, mutillek maixuak Lasalleko anaiak baidira eta, euskeraz tarketa egiten baidie *Anai* ¡bedeinkatu! oiek; neskak berriz ainbeste kalte egin duten monjak gure euskerari.

Beldur naiz ere gaurko eguneko apaizgaieri entzun da amaika sermoi euskera korapillatuan aitu bearrean izango gerala orain bezela. Bai, berriro diot denak gera errudun eta euskera galtzen bada guriak egin du. Nola agertu gure izatea? Ez demontre; nik agintzen dizut emaztea eta ama izanik aldedan guzia eutsiko diotela eta zuek gizon euskaldunok otxanak izan beste gauzetarako bañon euskerarentzako zuen euskal-gizontazuna agertu.

Zubeldia'tar M.ª Lourdes

Eratu gabeko pentsoarekin

Fanderiko pensoarekin

Ez Merkenak, Bai onenak!!!

Apdo., 36 Tel. 56134

RENTERIA

1.896 1.963

GIPUZKOA'KO PROBINTZI-ERASTETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure **"PRESTAMEN SERBITZARITZA"**z (Servicio de Préstamos) balia zaitez.

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko frutuak obetzeko

Jakinbidegin jarri zaitez Donostia'ko gure 7 ofizinetan eta Probintziako 59 sukursaletan.

Etxeko-andre: iraun arazi zure arropei onoko jaboi onein:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu **ATOMIZADO LAGARTO,** — jaboia erabilli beti

Eskuz ba'zabiltz, **LAGARTO** — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra!

Etxeko-andrearentzat nerkamerik egokiena,

¡¡JABON LAGARTO!!